

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIK

Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiak toki entitateei zuzendutako merkataritzari buruzko prestakuntza jardunaldiak antolatu ditu

Azaroaren 8tik 22ra bitartean izanen dira Bertiz, Tafalla, Tuteran, Iruñea eta Lizarran

Ostirala, 2018.eko azaroak 2

Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiak [merkataritzaren inguruko prestakuntza saioak](#) antolatu ditu toki administrazioentzako, merkataritzaren plangintza eta dinamizaziorako tresnak ezagutzera emateko helburuz. Jardunaldiak azaroaren 8tik 22ra izango dira Bertizen (hilaren 8an), Tafallan (azaroak 15), Tuteran (azaroak 20), Iruñean (hilak 22) eta Lizarran (azaroaren 27an).

Goizeko ordutegiz egingo diren jardunaldiak Nafarroako toki entitateetako langileei eta tokiko garapenrako eragileei daude zuzenduak, nahiz eta interesa duten dendetako arduradunek zein elkarteek ere parte hartu dezaketen. Saioen helburua merkataritzako arautegia eta Toki Administrazioek arlo horretan dituzten eskumen nagusiak ezagutzera ematea da. Ekintza hau, Nafarroako Txikizkako Merkataritza Bultzatzeko 2018-2019 planaren baitan kokatzen da eta merkataritza sektoreari eragiten dioten erabakiak hartzean parte hartzen duten eragile guztien arteko koordinazioa eta ahaleginak batzea du helburu, modu horretara ohiko merkataritzaren lehiakortasuna bulkatu, ekintzailetzari haize eman eta dagoen enpresa-ehuna sendotuz.

Jardunaldiei Nafarroako Gobernuko Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiko Margari Cuelik emango die hasiera eta ondoren arlo ezberdinetako hainbat adituk txikizkako merkataritzan eragina duten udal eskumenak zein establezimentuak irekitzeko tramiteei buruz azalpenak emango dituzte. Gainera, Merkataritzako Erakarpenean eta Antolamendu Planaren Ereduaren eta Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiaren sustapenean eta jarduketan ildoak aurkeztuko dira.